

GAINPOPULAZIOA

ANTZINA, hazkunde-tasa mila urtean % 2koa zen eta 1950-1960 hamarkadan urtean % 2koa izatera heldu zen. Beraz, munduko biztanleria mila milioi pertsona hazten da hamabi urtero. Minutuoro 150 pertsona gehiago dago; egunero 220.000 pertsona gehiago eta urtero 80.000.000 gehiago. Horrela 2000 urtean Lurreko biztanleria 6.100 milioikoa izango da.

Demografia-tasak txikiagotzen hasi badira ere, 1995. urtetik 2025. urtera bitartean biztanleria 2.000 milioi haziko da. Mende bat beharko da hazkundera zero izateko, baina orduan biztanleria 10.000 milioikoa izango da. Biztanle gehienak garapen-bidean dauden herrietan biziko dira.

Jaiotze- eta hilkortasun-tasak

Garapen bidean dauden herrietako hilkortasun-tasa ez da handia izaten; gazte asko baitago. Hortaz, haur-hilkortasuna izaten da adierazlerik garrantzitsuena.

Garatu gabeko munduko biztanleriaren % 32, jaiotze-tasa milako 25 baino txikiagoa, hilkortasun-tasa milako 10 baino txikiagoa eta haurren hilkortasun-tasa milako 50 baino txikiagoa dituzten herrietan bizi da; Txinan edo Koreako Errepublikan adibidez.

Garatu gabeko munduko biztanleriaren % 41, haurren hilkortasun-tasa milako 50 eta 75 artekoa eta biztanleri hazkundera urtean % 2koa dituzten herrietan bizi da. Brasil, India eta Mexiko honen adibide dira.

Azkenik, biztanleriaren % 27 jaiotze-tasa milako 30 baino handiagoa eta haurren hilkortasun-tasa milako ehundik gorakoa duten herrietan bizi da; Sahararen Hegoaldeko Afrika, Ekialdeko Asia eta Ekialde Hurbileko zenbait estatu dira honen adibide.

Beraz, herririk pobreenek izan dute biztanleri hazkunderik handiena.

Adinaren arabera biztanleriaren banaketa

Mundu industrializatuan, ikasteko adinean dagoen haur bakoitzeko 4,1 pertsona dago lan egiteko moduan eta garatu gabeko munduan haur bakoitzeko 2,3 pertsona dago. Beraz, garatu gabeko munduan produzitzen ez duen biztanle-



Gero eta pertsona gehiago bizi gara munduan. Horregatik gizakia eta munduaren arteko oreka zaildu egingo da.

ria sostengatzeko pertsona gutxiago dago mundu garatuan baino.

Garapen bidean dauden herrietako biztanleriaren % 40k 15 urte baino gutxiago ditu.

Migrazio mugimenduak

Hiritara bizitzera joaten diren pertsonen hezkuntza, osasun-zerbitzu edo enplegu hobeak lortzeko asmoa izaten dute eta aldi berean nekazal lurretan dagoen miseriatik urruntzea ere bai. Manilan, adibidez, 1970-1980 hamarkadan gertatutako biztanleri hazkunderaren % 55 inmigrazioaren bidezkoa izan zen.

Migrazioaren beste arrazoietakoa bat ingurugiroaren eragina da. Adibidez joan den hamarkadan 10 milioi afrikar baino gehiagok utzi zituzten beren lurraldeak ondorioz.

Hirien hazkundera

1950. urteaz geroztik hirietan bizi den biztanleria hirukoiztu egin da eta 1985. urtean 2.000 milioi ingurukoa zen. Herri garatuetan hiri-biztanleria bikoiztu egin zen 1950 eta 1985 bitartean, hau da, 477 milioitik 838 milioira igaro zen. Epe berean garatu gabeko munduko hiri-biztanleria laukoiztu egin zen, hau da, 286 milioitik 1.140 milioira igaro zen. 2000. urterako Hegoamerikako biztanleriaren % 75, Afrikakoaren % 42 eta Asiakoaren % 37 hirietan biziko dira.

Munduko batez bestekoa kontutan hartuz, milioi bateko biztanleria duen hiri batek 625.000 tona ur, 2.000 tona elikagai eta 9.500 tona erregai kontsumitzen ditu eta 500.000 tona ur zikin, 2.000 tona hondakin solido eta 950 tona atmosfera-poluiztaile sortzen ditu.

Gainera, hiri-hazkunderen eraginez, nekazal lurraldeak urri-ekin dira eta hori oso arazo larria izan daiteke zenbait herrietan. Egipton adibidez, gaur egun, lurren % 4k besterik ez du nekazaritzarako balio.

Amen hilkortasuna

Haurdunaldian dauden emakumeek gaixotasun arruntez hiltzeko besteek baino arrisku handiagoa dute. Urtero 500.000 emakume hiltzen dira haurdunaldian eta

hauetatik % 99 garatu gabeko herrietan gertatzen dira. Hilkortasun-mota hau 15 eta 49 urte-bitarteko emakumeen laurdenan gertatzen da. Emakume afrikar batek erditzearen ondorioz hiltzeko duen arriskua 1/14koa da eta Asiako zenbait alderditakoak duena 1/18koa. Herri garatuetako probabilitatea 1/4000 eta 1/7000 bitartekoa da.

Haurren hilkortasuna

Munduan izaten diren heriotzetan herena bost urte baino gutxiagoko haurrei dagokie. Garatu gabeko herrietan 11.000.000 haur hiltzen dira urtero, batez ere infekzioen eraginez. Bost urte baino gutxiago duten 100.000.000 haurrek ez dute bizi ahal izateko behar dena jaten.

Nekazaritzarako lurren murriztea

2100. urtean munduko biztanleria 10.200.000.000 pertsonakoa izatera helduko da eta une horretan demografi hazkundera ia zero izango dela uste da. Hauetatik 8.500.000.000 garatu gabeko herrietan biziko direnez, nekazal lurren eta ur-baliabideen banaketak garrantzi berezia izango du.

1950 eta 1985 bitartean munduko ale-produkzioaren hazkundera biztanleriarena baino handiagoa izan zen. 700.000.000 tonatik 1.800.000.000 tonara igaro zen, hau da, urteko hazkundera % 2,7koa izan zen. Hazkunde hau hazi berriak, ongari kimikoak, pestizidak eta ureztapen-sistemak erabilita lortu zen.

Hala ere, gaur egun 730.000.000 pertsona dago nahikoa jaten ez duena eta hauetako gehienak Ekialdeko Asian eta Sahararen Hegoaldeko Afrikan bizi dira.